

EUSKARAREN ERABILERA ETXEBARRIKO GAZTEEN ARTEAN

1. Egin dezagun konparaketa

Azkenaldi honetan Etxebarriko gazteen artean euskararen erabilera oso urria dela nabaritu dugu. Horregatik, ekintza bat abian jartzea pentsatu dugu. Hainbat herritako datuak bilatu ostean, eta datuak alderatuz, ikusi dugu nola esaterako, 2021eko ikerketa baten arabera, Durangoko zein Gernika-Lumoko gazteen ehunekoak Etxebarriko gazteena bikoizten duen.

Are gehiago, Ziortza-Bolibarren, Lea-Artibai eskualdean kokatzen den herrialdean, biztanleen %88,9 euskalduna da. Eraitza honek, inbidia ematen digu Etxebarri aldamenean dagoen Basauri herrialdeko eraitza larriarekin konparatuz. Honetan, biztanleen %28a baino ez da euskalduna. Gainera, eraitza hori kezkarria bada ere, are kezkarriagoa da erabiltzaileen portzentaia %3a baino ez izatea. Eraitza hau ezin genuen sinetsi eta gure kabuz inkesta bat egitea erabaki dugu.



2. Zer dio inkestak?

Jarduera honetan, esan bezala, inkesta bat egitea erabaki dugu eta bertan Etxebarriko gazteek hartu dute parte. Zoriturrez, datuek ez dituzte zifra onak erakusten. Hona hemen inkestatik ateratako datuak. Ez genuen espero zifrak hain altuak izatea, baina, partaideen %91,4k onartu du ez duela etxean euskaraz hitz egiten eta %8,6k baino ez du euskara erabiltzen gurasoekin. Etxeko kontuak alde batera utzita eta lan arloan murgilduz, %54,3k erdaraz eta %45,7k beti edo batzuetan euskaraz hitz egiten dutela onartu dute. Aurreko datuak ikusita poztu egin gara datuak nahiko orekatuta daudelako,

baina tristura eman digu %52,9k onartu duenean ez duela borondatez euskara erabiltzen.

Ostera, tabernara ateratzean, erdara erabiltzearen ehunekoak nagusiki gora egin du, %91,4k aitortu du gaztelaniaz egiten duela. Baina ikusi dugu, beste galdera bateko erantzunean baieztatu dute gazteek lotsa edo nagia sentitzen dutela euskaraz hitz egitean. Bestalde, euskaraz hitz egiten dietenean, %50a baino gehiagok euskaraz hitz egiten jarraitzen du, baina ez dute ia inoiz borondatez erabiltzen. .

Inkestetako emaitzak ikusita, hona hemen ateratako ondorio kezkagarriak. Denbora librean daudenean euskara baino gaztelania gehiago erabiltzen dutela ondoriozta dezakegu eta honekin pentsatu dugu lanean behartuta daudela euskaraz hitz egitera eta ez dutela haien borondatez egiten. Hau da, lan arloan euskara behartuta erabiltzen dutela, emaitzak erakusten dutelako langileen %52,9k ez duela borondatez erabiltzen. Gainera, nagia sentitzearen kasuan, gazteek diote jartotasun eta erabiltze ezaren gaitasun faltagatik dela. Horrez gain, adierazi dute haiek lehen hitza ez dutela euskaraz ematen, baina beste norbaitek euskaraz hitz egiten badie, hauek jarraitzen dutela. Hortaz, lehenengo hitza euskaraz ematea gomendagarria da, ziur dakigulako gazteek elkarriketari euskaraz eutsiko diotela.



3. Esperientzia pertsonala

Aurreko guztia kontuan hartuta, gure esperientzia azalduko dugu beste kasu batzuekin konektatuz. Egia da, aurreko belaunaldien migrazioak direla eta, familia askotan hainbat pertsonak ez dakitela euskaraz hitz egiten, honen adibidea hurrengoa da, euskaltegiko taldekidea den Mikelen aita Kantabriarra da eta ez daki euskaraz hitz egiten, hizkuntzaren erabilera orokorrean eragiten. Leireren kasuan, bere ama Burgosekoa da, ama burgalesa izanik, ez dute euskaraz mintzatzen etxean. Honen ondorioz, Leire ez da euskaraz aritzen eta kalean lehenengo hitza euskaraz ematea kostatzen zaio segurtasun falta duelako. Berriz, Jonen arreba oso trebea zen euskaraz aritzeko, baina kanpora ikastera joan zenez ohitura galdu du eta orain ez du ia erabiltzen, hizkuntza maila baxutik ikasten hasi beharra sentitzen du.

4. Eraman dezagun euskara aurrera

Inkestako datuak eta ikaskideen esperientzia ikusita, gazteen artean euskararen erabilera galtzen ari dela konturatu gara. Hori dela eta, hizkuntzaren erabilera gazteen artean sustatzeko hainbat proposamen aurkeztuko dizkizuegu. Horien artean, udalari ekintza gehiago euskaraz egitea proposatzen diogu. Jardueren artean honakoak dira bururatu zaizkigunak, alde batetik, zinema, euskal jolasak edota jokoak euskaraz sustatzea. Era berean, euskal-dantza talde bat sor daiteke, baita Bekosolo parkean dauden txokoetan egiten diren ekintzak euskaraz izan daitezela, hala nola, tailerra, yoga, eta taekwondoa. Bestalde, sare sozialen edukiak, hala nola, Instagram, Facebook zein Twitter euskaraz izatea ideia ona izango litzatekeela pentsatzen dugu.

Nahi ez badugu ere, gazteen errealtate gordina onartu beharra daukagu, beti ere aldaketa baten beharra aldarrikatuz. Gazteok gara herri honen etorkizuna, gure esku dago egoera hobetzea. Horregatik, animatzen zituztegu euskara ikastera eta hizkuntzaz gozatzera.



(Arratsaldeko C1 maila)